

## 9. etapa: Etxaguen-Letona (irailak 12)

### IbilVital ibilbideak

Etxaguen-Letona

2026ko irailaren 12a

08:30-14:00

5€



**Vital Fundazioak** mendian zehar gidatutako irteeren programa berri bat jarri du martxan udaberri honetarako, publiko guztientzat diseinatuta. Lehenengo edizio honetan GR25 izango da (batez ere Arabako Lautadan).

## Informazioa

Hegoalderuntz, ibilbideak Lautadako altxorretako batzuk ezagutzeko aukera emango digu. Lopez de Letonatarren dorrea, non bederatzigarren etapa hau amaitzen dugun, Santa Katalinako lorategi botanikoa edo Iruña Veleiako aztarnategi erromatarra, ondorengo

etapetan. Baina Letonara iritsi baino lehen, Olano eta Zaitegi bezalako herrietatik igaroko gara, eta, N-622a zeharkatu ondoren, Letonan izango gara, Gasteizko ekialdea zeharkatuz hegoalderako norabidea aldatzen duen etapa polit honen amaieran.

- **Distantzia:** 13,3km
- **Desnibela:** +249m -290m
- **Zailtasuna:** ertaina

## Izen-ematea

Izen-emateak 5€tan egin daitezke ondorengo formularioaren bidez:

[9. etapa: Etxaguen - Letona \(irailak 12\)](#)